




Aireko trafikoak gora egin du berriro Euskadin

Aireportuetatik igaro diren bidaiariak
Urte bakoitzeko maiatza. Milakoak




Iturria: AENA.

Maiatzean, EAEko aireportuetatik igaro diren pertsonen mugimenduak %23,1 egin zuen gora, aurreko urteko aldi beraren aldean. Guztira, 648.122 pertsona joan ziren hegazkinez, hilabete horretako serie historiko osoko erregistrorik altuena baita. Hazkunde handiagoa izan da atzeritarren artean (%31,1).

Turismoen matrikulazioa handitu da EAEn

Turismoen matrikulazioa EAEn
Urte bakoitzeko urtarriletik maiatzera




Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT).

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) argitaratutako azken datuen arabera, maiatza arte 11.328 auto saldu ziren Euskadin, aurreko urteko aldi berean baino %12,1 gehiago. Horrela, azken hilabeteetako joera positiboak bere horretan jarraitzen du, ekoizpen erritmoak berreskuratu eta gero.



Etxebizitzen salmenta %5,7 jaitsi da apirilera arte

EAEn saldutako etxebizitzak
Urte bakoitzeko urtarriletik apirilera




Iturria: INE.

2023ko lehen lauhilekoan, etxebizitzaren salmentak %5,7 egin zuen behera Euskadin, aurreko urteko aldi beraren aldean. Beherakada horren arrazoia, neurri handi batean, hipoteka maileguen baldintzak gogortzea izan zen, interes tasak etengabe hazten ari baitira.

Kontsumoko prezioak %3,4 hazi ziren maiatzean

EAEko KPI indizea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

KPIak bere hazkundera moteltzen jarraitu zuen eta %3,4an kokatu zen maiatzean, aurreko hileko erregistroa baino zortzi hamarren beherago. Erregaien beherakadak eta elikagaien apaltzeak eragin zuten bilakaera hori. Halaber, azpiko inflazioak %6,8tik %6,4ra moteldu zuen gorakada.